

**LABORAL**  
kutxa **ENPRESAK**

**Visa PRO / BUSINESS LABORAL Kutxa**  
Aseguru-polizak

  
**LABORAL**  
kutxa



ERAKUNDE ASEGURU-HARTZAILEAK EMANDAKO KREDITU-TXARTELEN TITULARRENTZAKO

## LAGUNTZA-ASEGURUAREN

### BALDINTZEN LABURPENA

LABURPEN HONEN HELBURUA INFORMATZEA BESTERIK EZ DA, ETA, BERAZ, EDOZEIN GATAZKA EDO AUZI ARGITZEKO, POLIZAREN BALDINTZA OROKORRETAN, PARTIKULARRETAN ETA BEREZJETAN JASOTAKORA JO BEHARKO DA.

ASEGURU HONEN BERMEARI ATXIKITAKO ZERBITZUAK EMATEKO, EZINBESTEKOA DA ASEGURATUAK ASEGURATZAILEAREN ESKU-HARTZEA ESKATZEA, GERTAERAREN LEKUTIK. MEDIKUNTZAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUTEN GAIETARAKO, PARTEAREN BERRI EMATEKO 7 EGUN IZANGO DITU, GEHIENEZ, BIDAIA AMAITZEN DEN EGUNETIK ZENBATZEN HASITA. DEITU BEHARREKO TELEFONOA EGUNEKO 24 ORDUETAN EGONGO DA ESKURA (HARTZAILEAK ORDAINTZEKO DEIA ERE EGIN DAITEKE; GALDETU OPERADOREARI).  
+34 910551615

## AURRETIKO XEDAPENAK

**ASEGURATZAILEA:** CAJA DE SEGUROS REUNIDOS CIA. DE SEGUROS Y REA-SEGUROS, S.A. CASER. Bere gain hartzen du kontratu honetan jasotako arris-kuen estaldura, eta berak bermatu eta gauzatzeko dituen bertako prestazioak.

**ASEGURU-HARTZAILEA:** CAJA LABORAL POPULAR SOCIEDAD COOPERATI-VA DE CREDITO (aurrerantzean, LABORAL Kutxa).

**POLIZA-ZENBAKIA:** 00002203

**HASIERA-DATA ETA MUGA-EGUNA:** 2020-01-01eko 00:00etatik 2020-12-31ko 24:00etara.

**ASEGURATUA:** Ohiko bizilekua Espainian duen pertsona fisikoa, LABORAL Kutxak emandako VISA CLASICA/CLASICA GO/AFFINITY/PRO/GOLD/BUSINESS txarteletako baten titularra, beraren ezkontidea edo erregistro ofizialean egoki inskribatutako izatezko bikotekidea, eta lehen graduko ahaide zuzenak, aurrekoak nahiz 18 urtetik beharago ondorengoak, betiere titularrarekin batera bizi badira eta titularrarekin batera bidaiatzen ari badira.

VISA CLASICA/GO/AFFINITY/PRO/GOLD EMPRESA/BUSINESS txartelaren kasuan, aseguraturatutaz jotzen dugu Espainian bizi den pertsona fisikoa, LABORAL Kutxak emandako VISA CLASICA/GO/AFFINITY/PRO/GOLD EMPRESA/BUSINESS txartelaren titularra, haren ezkontidea edo erregistro ofizialean egoki inskribatutako izatezko bikotekidea eta lehen graduko aurreko eta ondorengo ahaide zuzenak, betiere titularrarekin bizi badira. Horietaz gain, aurretiaz CASERi jakinarazitako enpresako langile pertsona fisikoa, Espainian bizi dena, haren ezkontidea eta lehen mailako aurreko eta ondorengo ahaide zuzenak, titularrarekin bizi badira.

**ASEGURUAREN EREMUA:** Poliza honetan deskribatutako bermeek Espainian, Europan eta mundu osoan jazotako gertaeratarako balio dute.

**BALIOA:** Estalitako bermeez baliatzeko, aseguratuak ez du 90 egun baino gehiago emango ohiko etxebizitzatik kanpo bidaiatzen edo joan-etorrietan.

## ESTALITAKO BERMEAK

ASEGURATUAK atalean deskribatutako pertsonen prestazio hauek jasotzeko eskubidea izango dute:

### 1. Atzerriko gastu medikoak.

Atzerrian edozein ezbehar edo gaixotasun gertatuz gero, gure gain hartuko ditugu zerbitzu medikoen, ebakuntzen eta ospitaleratzeen gastuak, 6.000 euroko mugarekin Europan eta 9.000 eurokoarekin munduko gainerako herrialdeetan. Berariaz sartuta daude premiazko gastu odontologikoak, 100 euroko mugarekin.

2. **Aberriratzeta eta osasun-arazoengatik lekualdatzea, mundu osoan.**  
Bidaian dagoen bitartean istripurik edo gaixotasunik izanez gero, aseguratua ospitalera eta ondoren etxera eramateko gastuak, inolako muga ekonomikorik gabe.
3. **Aseguratua hil ondoren lekualdatzea.**  
Onuraduna hilez gero, gure gain hartuko ditugu hildakoa (hilobiratuko den lekura) eta berarekin batera doazen senitartekoak Espainiara eramateko gastuak.
4. **Gertatzezko gaixotasunaren edo istripuaren ondorioz hoteleko egonaldia luzatzea.**  
Itzulera galarazten duen gaixotasunik edo istripurik gertatuz gero, gure gain hartuko dugu hoteleko egonaldia, elkarren segidako 10 egunetan gehienez, egunean 74 euroko mugarekin.
5. **Senitarteko baten joan-etorria.**  
Bezeroak edozein istripu edo gaixotasun izanez gero, gure kargu hartuko dugu senide bat munduko edozein lekutara eramateko gastua, bezeroari lagun diezaion.
6. **Laguntzen duen senitartekoaren egonaldiaren gastuak.**  
Gure gain hartuko dugu aseguratuari laguntzera joan den senitartekoaren hoteleko egonaldia, elkarren segidako 10 egunetan gehienez, egunean 74 euroko mugarekin.
7. **Aseguratuaren itzulera aurreratua, senitartekoa hil delako.**  
Atzerrian dagoen artean lehen mailako senideren bat hilez gero, gure gain hartuko dugu aseguratua Espainiara, hildakoa hilobiratuko duten lekura, eramateko bidaia, inolako mugarik gabe.
8. **Aseguratuaren itzulera aurreratua, senitartekoa ospitaleratu dutelako.**  
Atzerrian dagoen artean ustekabean lehen mailako senitartekoren bat 5 egunerako gutxienez ospitaleratu behar badute, gure gain hartuko dugu aseguratua Espainiako bizilekura eramateko gastua, inolako mugarik gabe.
9. **Adingabeak edo urritasuna duten pertsonak aberriratzeta edo garraiatzea.**  
Aseguratuak aberrira itzuli behar badu eta 15 urtetik beherako adingaberen bat edo urritasun fisikoa nahiz psikikoa duen pertsonaren

bat badu bere ardurapean, pertsona gaitu bat bidaliko diogu itzulerako bidaian lagun diezaion.

#### 10. **Bidaideak aberriratzeta.**

Aseguratuak aberrira itzuli behar badu eta, horren ondorioz, ezkontideak, lehen mailako aurreko eta ondorengo ahaideek edota neba-arrebek hasieran pentsatu bezala bidaian jarraitzerik ez badute, aseguratzaileak bere gain hartuko du horiek guztiak etxera edo aseguratua ospitaleratu dagoen lekura eramateko gastua.

#### 11. **Ekipajeak mundu osoan bilatu eta bidaltzea.**

Ekipajeak galduz gero, aurkitzen lagunduko dugu, eta, behin berreskuratu ondoren, horiek helmugara bidaltzeaz arduratuko gara.

#### 12. **Premia biziko gastuetarako laguntza, ekipajea entregatzean atzerapenik egonez gero.**

Ekipajeak entregatzean 24 ordutik gorako atzerapenik gertatuz gero, 120 euro ordainduko ditugu premia biziko artikuluak erosteko.

#### 13. **Bidaiaren atzerapena.**

Aseguratuak kontratatutako hegaldi erregularra gutxienez 6 ordu atzeratzen bada txartelean adierazitako irteera-ordutik eta atzerapen horrek overbooking edo gainerreserbarekin zerikusirik ez badu, aseguratzaileak bere gain hartuko ditu atzerapen horren ondorioz aseguratua hegaldia irten arte egindako gastu osagarriak, 180 euroko mugarekin.

#### 14. **Atzerrian fondoak aurreratzea.**

Aseguratua bizi den edo nazionalitatea duen herrialdetik kanpo bidaian dagoen artean eskudirurik gabe gelditzen bada, kreditu-txartelak galdu dituelako edo ostu dizkiotelako, eta fondoak behar baditu, aseguratzaileak 1.500 euroraino bidaliko dizkio, premiazko ordainketei aurre egiteko.

#### 15. **Atzerriko erantzukizun penalaren defentsa.**

Atzerriko erantzukizun penalaren defentsa bermatuko dugu, gastu eta fidantzetan, 3.000 euroko mugarekin.

## SALBUESPENAK

Hitzartutako bermeetatik kanpo daude:

- a) Aseguratuak nahita eragindako gertaerak, edota beraren doloz edo erru larritz eragindakoa.
- b) Aseguratuak bidaia hasi aurretik zituen gaixotasun eta gaitz kronikoak, eta horien ondorioak.
- c) Aseguratuak bere buruaz beste egitea, edota aseguruak halako saiakera egitearen ondoriozko edo apropos eragindako lesio eta gaixotasunak, bai eta haren jardun kriminalaren ondorioz sortutakoak ere.
- d) Alkohola, psikotropikoak, haluzinogenoak edota antzeko ezaugarriak dituzten drogak edo substantziak hartzearen ondoriozko gaixotasunak eta egoera patologikoak.
- e) Tratamendu estetikoak eta audifonoak, lentillak, betaurrekoak, ortesiak eta protesiak oro har hornitzeko eta ordeztzeko gastuak, bai eta erditzeak, haurdunaldiak eta edozein gaixotasun mentalek eragindako gastuak ere.
- f) Aseguratuak apustueta, kirol-lehiaketa eta -probetan, eskiatzen eta neguko edota abenturako edozein kirolean mendi-ibilaldiak, trekkinga eta antzeko jarduerak ere aintzat hartuta jarduteagatik sortutako lesioak eta gaixotasunak, bai eta pertsonak itsasoan, mendian edota basamortuan erreskatatzeagatik sortutako gastuak ere.
- g) Zuzenean edo zeharka energia nuklearrak, erradiazio erradioaktiboek, hondamendi naturalek, gerra-ekintzek, liskarrek eta ekintza terroristek eragindako gertaerak.
- h) 9 eurotik beherako balioa duen edozein gastu mediko edo farmakologiko.

## ERANTZUKIZUN ZIBIL PRIBATUKO ESTALDURA:

Polizak estaltitako bidaian zehar kontratuaz kanpoko erantzukizunen bategatik aseguruari erantzukizun zibilen bat galdagarri bazaito dagokion herrialdean indarrean dagoen legediari jarraikiz, aseguratzaileak bere kargu hartuko ditu, 30.000 euroko mugarekin, hirugarrenei eta euren animalia edo gauzei nahi gabe eragindako kalte pertsonalak eta materialak, bai eta horien ondoriozko galerak ere. Muga horren barruan sartuko dira judiziozko kostu eta gastuak, bai eta aseguruari galdatzen zaizkion fidantza judizialak eratzea ere.

### - Aseguratuaren betebeharrak:

Erantzukizun zibileko ezbeharrak gertatuz gero, aseguruak edo horren eskubidedunek ez dute inolako erreklamaziorik onartuko, negoziatuko edo ezetsiko, aseguratzailearen berariazko baimenik gabe.

### - Salbuespenak:

- a) Ibilgailu motordunak, aireontziak eta itsasontziak gidatzeagatik edota suzko armak erabiltzeagatik aseguruak aurre egin beharreko edozein erantzukizun.
- b) Jardunbide profesionalaren, sindikalaren, politikoaren edo elkartzekoaren ondorioz sortutako erantzukizun zibila.
- c) Edozein auzitegik edo agintarik ezarritako isunak eta zigorrak.
- d) Edozein kirol profesional egiteagatik edo zaletu gisa honako kirolen bat egiteagatik sortutako erantzukizun zibila: alpinismoa, boxeoa, bobsleigha, espeleologia, judoa, parakaidismoa, delta hegala, motorrik gabeko hegaldia, poloa, errugbia, tiroa, yachtinga, arte martzialak eta ibilgailu motordunetan egindakoak.
- e) Edozein izaerarekin aseguruari utzitako objektuei eragindako kalteak.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

Berme hauetarako laguntza eskatzeko telefonoz deitzen denean, honako hauek jakinarazi beharra dago: aseguratua zena, txartel-zenbakia, non dagoen, telefono-zenbakia eta zer laguntza-mota behar duen.

Ez da onartuko erantzukizunik, ezinbesteko kasuen ondoriozko atzerapen edo hutssegiteetan, edota herrialde jakin bateko ezaugarri administratibo edo politiko bereziek eragindakoetan. Nolanahi ere, zuzenean esku hartzerik ez badago, Espainiara itzultzen denean edota, premiazko kasuetan, aipaturiko egoerarik ez dagoen herrialderen batera iristen denean itzuliko zaizkio aseguratuari ordaindu behar izan dituen eta bermepean dauden gastuak, betiere egiaztagiri egokiak aurkeztu ondoren.

Medikuntzari eta osasun-garraioari lotutako laguntzak jasotzeko, ezinbestekoa izango da aseguratua artatzen duen ospitaleko sendagilearen eta aseguratailearen mediku-taldearen arteko adostasuna lortzea aurretiaz.

Aseguratuak erabili gabe utzitako bidaia-txartelaren zatia kobratzeko eskubidea badu, garraio- edo aberriaritze-bermea gauzatu ondoren, kopuru hori asegurataileari eman beharko dio.

Kalte-ordaina jaso aurretik, estaldura jasotzeko eskubidea ematen dioten egiaztagiriak eskatu ahal izango dizkio asegurataileak aseguratuari.

Bermeetan zehaztutako kalte-ordainek osatu egingo dituzte arrisku horiek estaltzeko aseguratua dituen beste kontratu batzuk, Gizarte Segurantzaren laguntzak eta aurreikuspen kolektiboko beste edozein araubide.

Aseguratailearen esku-hartzea eragin duten gertaeren ondorioz aseguratuari dagozkion eskubideen eta ekintzen subrogatua izango da aseguratailea, emandako eta ordaindutako zerbitzuen zenbateko osora bitarte.

Erakunde hartzailea behartuta dago aipatu diren baldintzetako hizpaketetan jasotako aseguru-ziurtagiriak aseguratuei emateko. Ildo beretik, poliza berritu ezean, erakunde hartzaileak bere egiten du aseguratuei kontratua amaitu egin dela eta, beraz, kontratuak aitoritzen dizkien eskubideak ere azkendu egin direla jakinarazteko betebeharra.

---

Laburpen hau aseguratuei eman behar die poliza-hartzaileak. Erakunde hartzaileak CASERekin sinatutako erreferentziako poliza kolektiboan ezartzen diren kontratu-baldintzen laburpena da, eta, beraz, interpretatzean zalantzarik sortuz gero, horietan xedatutakoa bete beharko da. Aseguratuek hartzailearen egoitzan izango dute eskura hitzarmen hori. Erreferentziako polizak indarrean dirauen artean eta aldatetarik ez duen artean egongo dira indarrean aseguratutako prestazioak. Poliza azkentzen den unean bertan ezereztuko dira prestazioak ere. Aseguratutako txartela eman duen erakundeak eskubidea izango du aseguru hau edozein unetan azkentzeko edo aldatzeko.

VISA CLÁSICA/GO/AFFINITY/AKTIBA/PRO/GOLD/GOLD PRIME/  
BUSINESS

## ISTRIPU ASEGURUAREN

### INFORMAZIO-LABURPENA

LABORAL KUTXAK SEGUROS LAGUN ARO SAREKIN IZENPETUTAKO 11.97.01.000354 ZENBAKIDUN ISTRIPU-ASEGURU KOLEKTIBOAREN POLIZAREN BALDINTZA OROKORREN ETA PARTIKULARREN LABURPENA. BALDINTZA HAUEK 2019KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA DAUDE INDARREAN. LABURPEN HONEN HELBURU BAKARRA INFORMAZIOA EMATEA DA, ETA EDOZEIN AUZI EDO GATAZKA ARGITZEKO, POLIZAREN BALDINTZA OROKORRETAN ETA PARTIKULARRETAN ADIERAZITAKO A BETE BEHARKO DA.

## ASEGURATUTAKO KOLEKTIBOA

### A) Txartelarekin ordaindutako garraio publikoen istripu-aseguruaren estaldura:

Aseguratutzat hartuko dira garraio publikoan bidaiatzen ari diren pertsona guztiak, garraio publikotzat joz garraio-mota hori egiteko baimen administratiboa duen ibilgailu oro, bai eta alokairuko autoa ere, bidaiaren edo alokairuaren zenbatekoa LABORAL Kutxak jaulkitako VISA CLÁSICA/GO/AFFINITY/AKTIBA/PRO/GOLD/GOLD PRIME/BUSINESS txartelarekin ordaindu bada.

Bidaia bat partzialki ordaindu bada Visa txartelarekin, aurrerago zehaztutako kalte-ordainak kalkulatzeko, aipatutako txartela erabiliz ordaindutako bidaia-txartelaren zenbatekoaren ehunekoarekin bat datorren kapital aseguruaren hainbanakoa hartuko da aintzat.

Txartel bakar batekin ordainduz gero, bederatzi pertsona aseguratuko dira gehienez, titularra barne.

Alokairuko autoa: kasu horretan bost pertsona aseguratuko dira gehienez ere, titularra barne.

### B) Erosketen dirua itzultzeko eta txartelarekin ordaindutako erosketen saldoa ezeztatzeko estaldura:

Aseguratutzat jotzen dira LABORAL Kutxak jaulkitako VISA CLÁSICA/GO/AFFINITY/AKTIBA/PRO/GOLD/GOLD PRIME Personal txartelaren titularrak (enpresa-kontu batera karguak dituzten txartelak izan ezik), betiere txartela erabili badute erosketen ordainketa egiteko, ezbeharra gertatu aurreko azken 12 hilabeteko epean.

## ESTALITAKO ARRISKUA

### A) Txartelarekin ordaindutako garraio publikoen istripu-aseguruaren estaldura:

Honako istripu hauen ondoriozko gorputzeko kalteak bermatzen dira:

- Bidaiarien garraio publikoa egiteko baimendutako edozein ibilgailutan bidaiari gisa jasandako istripuak, bai etagarriobidera igotzeko eta jaisteko unean izandakoak edo bidaiatzeko zain egoteko lekuan gertatutakoak ere (geltoki, portu edo aireportuetan).
- Goian adierazitako baimendutako garraio publikoaren irteerako edo itzulerako puntura joateko erabilitakogarraio publiko osagarri gertatutako istripuak. Ondorio hauetarako soilik, garraio publikotzat joko dira alokairuko turismoak.
- Estali egingo dira aseguratutako pertsonak, bidaiari gisa, bidaiaren zehar baimendutako edozein garraio publikotan egindako ibilbidean gertatutako istripuak, eta ez da nahitaezkoa izango garraio publiko horitxartelarekin ordaintzea, betiere bidaia nagusia, joan-etorria, txartelarekin ordaindu bada eta haren iraupena 30eguneko baina luzeagoa ez bada.
- Aseguratua bidaia egiteko alokairuko ibilgailu batean bidaiari edo gidari gisa badao eta autoaren alokairua Visatxartelarekin ordaindu bada.

- Bermatu egiten dira egiaztatutako eta beharrezko gastuak, garraibidearen bahiketaren ondoriozkoak badiraeta laborpen honen Kapital Aseguratuari buruzko atalean adierazitako zenbatekoaren mugaraino.

### **B) Erosketen dirua itzultzeko eta txartelarekin ordaindutako erosketen saldoa ezeztatzeko estaldura:**

Eguneko 24 orduetan zehar gertatutako istripuen ondoriozko gorputzeko kalteak bermatzen dira.

## BERMEAK

**Heriotza:** Heriotza bat-batean gertatzen bada edo istripuaren datatik urtebetera, Aseguru Etxeak aseguratutako kapitalaren % 100en ordainketa bermatzen du.

**Baliaezintasun Iraunkorra:** Jasandako lesioen ondorioz, Aseguratua, osorik eta modu iraunkorrean, edozein lan-mota edo ordaindutako enplegua betetzeko ezindua edo ezgaitua gelditzen denean eta ezintasun iraunkor absolutu atzeraezina istripuaren datatik hurrengo 12 hilabetetan gertatzen denean, Aseguru Etxeak aseguratutako kapitalaren % 100 ordainduko du.

Lesioek jarraian adierazitako kaltea ekarri badute, istripua gertatu eta 100 egunen buruan, Aseguru Etxeak galera hauengatik ordainduko du:

- Bi eskuak, bi oinak edo bi begien ikusmena: aseguratutako kapitalaren % 100.
- Esku bat eta oin bat: aseguratutako kapitalaren % 100.
- Beso bat edo hanka bat: aseguratutako kapitalaren % 50.
- Esku bat edo oin bat, edo begi baten ikusmena: aseguratutako kapitalaren % 50.

## KAPITAL ASEGURATUA

### **A) Txartelarekin ordaindutako garraio publikoetan gertatutako istripuen aseguruaren estaldura heriotzagatik edo baliaezintasun iraunkorragatik:**

Kapitala: 300.000 euro pertsonako.

Txartelarekin ordaindu den alokairuko auto baten estaldura, gidari edo bidaiari gisa: 150.000 euro.

Hildakoa 14 urtetik beherakoa bada, kalte-ordaina 6.000 eurokoa izango da soilik eta hiletako gastuen kontzeptuagatik.

Gastuak garraibidearen bahiketagatik: Aseguru Etxeak gehienez ere 6.000 eurorainoko kalte-ordaina ordainduko du kasu guztietan.

### **B) 1.- Txartelarekin ordaindutako erosketen dirua itzultzeko estaldura, heriotzagatik edo baliaezintasun iraunkorragatik:**

Titularrak egindako eta LABORAL Kutxaren Visa txartelean zordundutako erosketen zenbatekoaren pareko kapitala, betiere erosketak istripuaren aurreko 12 hilabeteetan egin badira, eta 15.000 euroko gehieneko mugarekin ezbehar bakoitzeko.

### **B) 2.- Txartelarekin ordaindutako erosketen saldoa bertan behera uzteko estaldura, heriotzagatik:**

Aseguratutako txartelarekin egindako ondasun higigarriak eta salgaiak erosteagatik ordaintzeko dagoen saldoaren pareko kapitala, 6.000 euroko gehieneko mugarekin ezbehar bakoitzeko.

## ONURADUNAK

Heriotza gertatuz gero, Aseguratuak espresuki izendatutako onuradunik ez badago, aseguruaren onuraduntzat hartuko dira, lehentasunezko ordenan, hauek: 1. Ezkontidea, legez bananduta ez badago. 2. Seme-alabak. 3. Aseguratuaren gurasoak. 4. Aseguratuaren legezko jaraunslak. Ezintasunaren kasuan, aseguratutako zenbatekoa Aseguratuari berari emango zaio. Ezbeharraren unean, txartelaren titularak LABORAL Kutxari zenbatekoren bat zor badio, LABORAL Kutxa izango da lehenengo onuraduna ordaindu gabe dagoen zenbatekoa estali arte.



## ADIN-MUGA

### A) Txartelarekin ordaindutako garraio publikoen istripu-asegurua estaldura:

Aseguratuaren adinak ez du estaldura mugatzen.

### B) Erosketen dirua itzultzeko eta txartelarekin ordaindutako erosketen saldoa ezeztatzeko estaldura:

Estaldura Aseguratuak 70 urte betetzen dituen eguneko zero orduan etengo da automatikoki.

## ESKLUSIOAK

Esklusio hauek adierazteko jasotzen dira, eta ez mugatzeko; hortaz, ez dira estaliko ezbehar hauen ondorio zuzena edo zeharkakoa diren gorputzeko kalteak:

- Gerrak, gatazka armatuak eta terrorismoa (Aseguruen Kontentsazio Partzuergoak eskainitako estaldura izan ezik).
- Bere buruaz beste egitea edo suizidio-saioa.
- Miokardioko infartuak eta garun-hodietako gaitzak.
- Aseguratuak delituzko ekintzetan, duela eta edo liskarretan parte hartzeagatik sortutako istripuak.
- Aseguratuak alkoholaren, drogen eraginpean edo burua galduta egoteagatik izandako istripuak.
- Legez garraio publikoaren sailkapena ez duten aireko garraioetan gertatutako istripuak.
- Jarduera eta/edo kirol arriskutsuak (parakaidismoa, alpinismoa eta espeleologia) egitean eta abentura-kirolak (puentinga, raftinga, arroielen jaitsiera) praktikatzeko gertatutako istripuak.
- Espainiaren jurisdikzioko uretatik kanpo egindako nabigazioa, bidaiaren garraio publikoak ez diren ontzietan.

- 25 urtetik beherakoentzat ziklomotorrak edo motozikletak erabiltzea eta gidatzea kasu guztietan, eta 25 urtetik gorakoentzat 250 cm<sup>3</sup> baino zilindro-bolumen handiagoko motozikletak erabiltzea eta gidatzea.

Baita FP1101/04 Berr. Istripu kolektiboen Baldintza Orokorretako 4. artikuluan adierazitakoak ere.

## GEHIENEO KALTE-ORDAINA ASEGURATUTAKO PERTSONA BAKOITZEKO

Visa CLÁSICA/GO/AFFINITY/AKTIBA/PRO/GOLD/GOLD PRIME/BUSINESS txartelaren bikoiztua jaulkitzeak edo LABORAL Kutxak titular beraren izenean beste bat jaulkitzeak ez du nahitaez ekarriko aseguratutako kapitalen metaketa bat, eta kapital horiek ezingo dira izan Bermeak eta Kapitalak atalean ezarritakoak baino handiagoak.

Bidaia-txartel bakoitza txartel bakarrarekin soilik ordaindu ahal izango da, beraz, ezingo dira inola ere bermeak bikoiztu.





